

## **Euskarazko irakurketa sustatzeko "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina egingo da Begoñako liburutegian (Bilbo)**

Begoña barruti bilbotarreko liburutegiak hirugarren urtez egingo du bat "Irakurri, gozatu eta oparitu" euskarazko irakurketa sustatzeko egitasmoarekin. Euskadiko zenbait liburutegik parte hartzen duten ekimena da, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren ekimenez sortuta, eta bilbotarren artean euskarazko literaturarekiko zaletasuna piztea du helburu, Bilboko Udaletik azaldu dutenez.

Ekainaren 24ra arte, Begoñako liburutegitik euskarazko liburu bat hartzean eta ondoren liburuaren iritzia ematen fitxa bat betetzean, erabiltzaileak %25eko deskontu txartela jasoko du, egitasmo honekin adostutako Bilboko liburu-dendetan beste euskarazko liburu bat erosteko. Honekin, mailegu zerbitzua erabiltzen dutenengana hurbiltzea ezezik, euskarazko liburuak oparitzeko erraztasunak eskaintzen dira, euskarazko irakurketa sustatzeko asmoz.

"Irakurri, gozatu eta oparitu" Bilboko Liburutegi Sareko beste ekimen kulturalen barruan antolatzen diren egitasmoen artean sartzen da, helburua euskarazko irakurketa bultzatzea delarik. Ildo beretik egiten dira "Ezagutu gure liburutegiak", "Idazleekin solasaldiak Bilboko udal liburutegietan" edota "Tailerrak" ekimenak. Topaketa eta tailer hauen bidez Bilboko liburutegietako zerbitzuak ere ezagutarazi nahi dira.

Begoñako liburutegia Bilboko Udal Liburutegien Sareko 15 kideetako bat da 1997an sortu zenetik, eta barruti honetako udaltegiko bigarren pisuan kokatuta dago.